

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

Azoka Berezia

Zizurkil Goia



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2009-2012

urria 2011 | 95. zenbakia | UDAZKENA



IKASTAROEN HASIERA:

(eskulanak, mantentze gimnasia, yoga, pilates, marrazketa, ...): Urriaren lehenengo astean IRIARTE ETXEAN egingo diren ikastaroak URRIAREN 17an hasiko dira.

EUSKARA:

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK:

Aurtengoan, Zizurkilgo Udalak, Villabonakoarekin batera, herrian bertan euskara ikasteko saiakera berezia egin du eta urrian sortu diren taldeak martxan jarriko dira. Diruz lagunduko dira ikastaro hauek: Zizurkilen erroldatua dagoen edozein pertsonak ikastaro amaieran %85eko asistentzia bermatzen badu, matrikularen %75a (pertsoneko 400 eurotako gehiengoarekin). Informazioa gehiago: Euskara Zerbitzuan, 943 692 495 telefonoan.

MINTZALAGUNA:

Zure euskara maila hobetu nahi duzu astean behin ordubeteko saioa eginez? Modu lasaian, gehien gustatzen zaizuna eginez eta jende berria ezagutuz. Azaroan jarriko ditugu martxan hiru pertsonen osaturiko taldeak: bi euskaldun berri eta euskaldun zahar bat. Anima zaitetz! Euskara Zerbitzuan informazio gehiago.



TEODORO HERNANDORENA X. IPUIN LEHIAKETA:

Kalean dira dagoeneko oinarriak. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute eta bost maila ezberdin antolatu dira adinen arabera (A. Maila: 6-8 urtekoena; B. Maila: 9-11 urtekoena; C. Maila: 12-13 urtekoena; D. Maila: 14-16 urtekoena eta E Maila: 17 urtetik gorakoena). Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 11a bitartean, egun hau barne, eguerdiko 14'00ak baino lehenago Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

2011-10-16: ZIZURKILGO XIV. AZOKA BEREZIA

11'00-14'30/16'30-19'30:

Baserriko produktuak eta artisauak.

Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar.

11'00: Kantu jira. Azoka euskal kantuz alaituko dute.

12'00: Haurrentzat jolasak Udaletxe aurrealdean.

13'00: "Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria" Zizurkilgo janari postu hoberenari eta Kantu jira.

14,30: Bazkaria Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte eta Atxulondo tabernetan. Prezioa: 15 euro.

17'00: Haurrentzat poniak eta jolasak.

18'00: Gipuzkoako Giza-Proba Txapelketa.

Azoka Berezia

KZ GUNEA:

Tutoritza egunak: urriaren 6 eta 20an 9:00etatik 13:00etara.

BESTELAKOAK:

"HERRITARRAK ARTISTA" ELKARTASUN ERAKUSKETA:

Urriaren 1etik 16ra ikusgai izango da Iriarte Etxean. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta igandeetan 12:00etatik 14:00etara.

2011-10-08: GARAGARDO GAUA Zizurkil Goian.

"DEMENTZIAK, ALZHEIMERRA" IKASTAROA:

Azaroaren 7,14 eta 21ean, 15:30etik 18:45era Atxulondo Kultur Etxean. Doakoa. Informazio gehiago: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean, 943 693 930.